

Aitor Gonzalez, txirrindularia:

# "Zaila da profesionaletara salto egitea, ia ez dago aukerarik"

Hiru lasterketa irabazi ditu aurten Ermuko txirrindulari honek, Euskadiko Txapelketa barne, eta profesionalen aurrean aurpegia ematen ibili da ahal izan duenean. Peio Goikoetxea herrikidearekin batera Ermuko txirrindularitza berriz ere goi-mailara eramateko bidean dago, baina pedalkada gogorak eman beharko ditu oztopoak gainditzeko

**- Zure kirol ibilbideko momentu onenean zaude?**

Bai. Normalean urtean lasterketa bakarra irabazten dut. Iaz bi irabazi nituen, baina aurten hiru garaipen lortu ditut jada eta oraindik urte erdia falta da denboraldia amaitzeko.

**-Hala ere, Espainiako Txapelketan profesionalekin lehiatzeko aukera izan zenuen.**

Bai, elite eta profesionalak batera aritu ginen.

**-Bada ihesean ibili zinen!**



Aitor erasoan

lhesaldian sei sartu ginen eta ni nintzen elite bakarra, baina gero harrapatu gintuzten.

**-Alde handia dago elitekoekin lehiatzetik profesionalekin aritzera?**

Tira... lasterketa horretan ez zegoen mendate gogorrik, baina haizea eta bero handia zegoen. Zirkuitu bati bueltak eman genizkionez, taldeko laguntzaileak bidean jartzen ziren eta behar genuena ematen ziguten. Ura momentu oro!

**-Lasterketa Alejandro Valverdek irabazi zuen.**

Baina hori aurretik idatzita zegoen! Gainera, etapa amaiera aldapatxo batean zegoen, berarentzat oso aproposa zena, eta talde oso indartsua zeraman berarekin. Espainiako Txapelketan ez dagoenez taldekide mugarik,



Aitor Peio Goikoetxearen errobera jarraituz

Movistar txirrindulari askorekin irten zen lasterketara eta dena nahi zuten bezala kontrolatu zuten.

**-Aurretik profesionalekin lehiatzeko aukera izan duzu?**

Iaz Espainiako Txapelketan ere izan nintzen eta aurten Espainiako selekzioarekin Gaztela Leongo Itzulian aritu nintzen. Movistar, Caja Rural eta Europcar bezalako taldeak egon ziren han, eta Pierre Rollandek irabazi zuen. Esperientzia ona izan zen. Askok sufritzen duzu, baina aurretik 20 bat txirrindulari doazenean, atzekoak antolatu eta helmugara iristea da helburua.

**-Datorren urtean profesionaletara jauzia egiteko aukerarik ikusten duzu?**

Krisiarekin zaila da, izan ere, ez badira taldeak irteten, ez dago ia aukerarik. Nire aldetik dena jarriko dut hori gerta dadin, baina itxarotea besterik ez zait geratzen.

**-Aurten lortutako emaitzeekin, beste taldeek jarriko zituzten begiak zuregan bada.**

Espero dut, baina ez dakit.

**-Bestela ere, zein da zure asmoa?**

Afizionatueta jarraitzea ez behintzat, ez digutelako ordaintzen eta ahora zerbait eramateko dirua irabazi behar da.

Ekhi Velar

**Caperos**

Pintxoak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitaratekoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

**Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

**Zure publizitatea:**

**drogeteniturrri  
aldizkarian**

943 179350 / 688 632876  
drogeten@gmail.com

**T** XALAPARTA  
ABERNA

**Et**a asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!

**Erdikokale 13  
(Ermua)**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**ENKARGYAK  
943 030 299**

**Enter**  
INFORMÁTICA

SALMENTAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea  
Tel. 943 17 90 37  
e-maila: enter-i@arrakis.es